

uztarrria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2013ko urtarrila |||146. zenbakia|||



ARGI IZPIA, ZULO BELTZEAN

Minbiziaren aurkako lubakian, gogor ari
dira borrokan Ana mendizabal eta
Juanmari Olaizola 20



MILAR
LARRAMENDI

eta

Miele ren

PARTETIK

2013

**OPAROA IZAN
DEZAZUELA**



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 146.a (2013ko urtarria)
Urtea. XIV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 oalegria@uztarria.com
Bazkietza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. EREGI
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzaren Gobernua



Azpeitia udala

Uztarririk Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2013KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



iritzia

Kritika. Laurobaren 'Iglu bat basamortuan' diska, Ane Bastidak **15**

mamia

Kultur Mahaia. Herriko kultur mugimenduak datozen urteetan nondik jo, gogoeta **04**

Klik! 2012ko gertakaririk aipagarrienak argazkitan **16**

Harrera elkarte. Preso eta iheslari ohiak gizarteratzen laguntzea helburu **24**

jakiteko

Joseba Iriondo. Aurkezle lanak utzita ere, bizitza oparoa **34**

Ba aL dakizu www.uztarria.com webgunek 749.943 bisita izan dituela 2012. urtean? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrian

943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean. **gara** dagoeneko Uztarrian; 126.540 euroko aurrekontua du eskerrik asko denei. Uztarririk 2013. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabara', Enrike Zurutuza

Kultura, su bajuan

Herriko kultur mugimenduak datozen urteetan nondik jo behar duen gogoeta egin du Kultur Mahaiak. Hona hemen haren idatziko zati batzuk. 📎 Ainitze Agirrezabala

Marke orokorra.

“Azpeitian guztion artean kultura aldetik bide bat egiten ari gara. Kultur komunitateko kideon zeregina da, taldeka / eragileka zein kolektiboki, pausoak ematen segitzea, katea ez eteteko, kultur mugimendua aberasten jarraitzeko. Nor izaten jarraitzeko.

Herrian kultur komunitate garrantzitsu bat osatzen dugu. Beraz: ‘Guztionez erantzukizuna da ondare hau hurrengo belaunaldiei ahalik eta bizien transmititzea. Euskal kultur gintzak, kultur sormen eta kontsumotik haratago, badu eragin sakonago bat: euskal nortasunaren elikagaia izatea, izateko arrazoiak eta sinboloak elikatzea’ (Huzezi fakultatea).

Azpeitiko Kultur Mahaiak orain arte oinarri garrantzitsu bat jarri du: barne egituraketa eta ibilbide kolektibo bat, Sanagustin kultur-gunea, kultur komunikabideak...

Beste fase bati ekingo diogu orain.

Oro har, bilgunearen lana sormenean, transmisioan, (egutegi...) orekan eta koordinazioan sakontzea edo hobetzea izango da”.

ILDOAK.

“Aurrera begira jorrazteko ildo hauek ontzat jo dira Kultur Mahaiaren ohiko batzarrean:

Sorkuntza. Ideia berri gehiago landu denok, eta sormenerako arlo ugariarentzat espazio zabala izan ala ez aztertu. Sorkuntzarako giro bat erein —jakina, herrian egiten dena errespetatu, eta sustatu—.



Azpeitiko Kultur Mahaiak abenduaren 29an egindako ohiko batzarrean izandako gehienak. |||Uztarria

||| **KULTUR MAHAIAREN IBILBIDEA** |||||

1. fasea: antolaketa eredu bat. "Azpeitiko eragile asko eta askotarikoak batera jarri ginen lanean: kultur taldeak, udal taldeak, teknikariak, norbanakoak... Antolaketa eredu bat finkatu genuen: Kultur Mahaia modu iraunkorrean

2008tik aurrera, Talde Eragilearen sorrera orduan, batzarrak, erabaki kolektiboak, barne araudiak, teknikaria, bazkideak, plan orokor bat... Horrez gain, komunikazio tresnak sortu genituen: Interneteko ataria, hileroko eskuko agenda..."

Transmisioa. Jende berria lortu kultur mugimendurako, gazte(txo) eremuak landu, gazte(txo)ak ekarri / erakarri kulturara.

Herriko egutegi orekatua. Oreak dizi-plina, fetxa eta espazio aldetik... Kultur Mahaian ez dauden baina kultur ekitaldiak antolatzen dituzten elkarteak ere landu. Mahaiko batzar batean irizpideak finkatu genituen; gauzatzen hasi, progresiboki.

Sanagustin kulturgunea. Zerbitzu hobia emateko, baliabide ekonomiko handiagoak izateko, kultur egitaraua

hobetzeko edota haren bidez plaza / parte zaharra gehiago biziberritzeko lan egin –Kultur Mahaia kudeatzen du Sanagustin–.

Udal kultur aurrekontuak. Gaiaz hitz egiteko espazioa zabaldu udalak. Kultur mugimenduko ordezkariekin gune bat osatu. **Beste bi arlo:** 1. Erakuseta aretoa. Betharrametakoa gune duin batean bilakatu da. Plana osatu, irizpideak jarri oreka lortzeko, arlo asko hartu, taldeen plaza, egile berrientzat lekua... Beste gune batzuekin uztarketa.

3. fasea: 2013tik aurrerakoa. "Oinarri horren gainean gehiago eraikitzeko garaia dela uste dugu, modu kolektiboan arituta. Udarren hasi ginen gogoetan, taldeen diagnostiko bat egin dugu, eta plan bat osatu. Helburua: kultur mugimendua aberastu, zabaldu eta gehiago koordinatzea".

2. Parte zaharra biziberritu. Parte hartu udalaren prozesuan. Izan ere, kultur ekitaldi gehienak parte zaharrean egiten dira eta kultur azpiegitura nagusiak han daude".

IRIZPIDEAK.

Batasun bat eman planari. "Aipatutako ildo askok elkarrekin zerikusia dute. Adibidez, sorkuntzako ekimenek eta parte zaharra biziberritzeak, Sanagustinek eta parte zaharrak, sormen ekimenek eta Sanagustinek, egutegia orekatzeak eta parte zaharrak, sormen ekimenek eta udal aurrekontuek, sormenak eta gazte(txo)ek –transmisioak–... Beraz, planari batasun bat eman, koherentzia bat izan dezan".

Su bajua. "Giro, barne kohesio edo konzientziario hori ez da gauzatuta ikusten egun batetik bestera; bide luzearen ondorioa izan ohi da. Su bajua piztuko dugu. Kultur Mahaiko Talde Eragilea balore horiek azpimarratzen joango da, taldeei insistitzen eta laguntza ematen / eskaintzen, baita bide horretan ekimenak burutzen ere. Elkarrekin bakoitzak barru mailan ere balore horiek landu beharko litzuke gerora (ere). Joseba Jaka euskaltzaleak esaten zuen: 'Egin, egin behar da'. Arrazoi. Fase honetan ere joango gara egiten, pixkanaka. Eta, batez ere, ereiteko asmoz".

LANEAN.

Lan batzuk aurreratuta. "Gauza batzuk aurreratzen ari gara, lehendik datozen gaiak direlako: egutegi orekatuaren irizpideak onartuta ditugu batzar batean, Sanagustinek proiektua hobetzen segitzeko neurriak finkatu ditugu, udala kultur aurrekontuei buruz taldeekin-eta hizketan hasia da, eta parte zaharra biziberritzeko bilgune berrian parte hartzen hasi da Kultur Mahaia".

Urtarrilean-otsailean bilerak. "Taldeen ez dauden norbanako sortzaileekin, sormenari buruz eragileekin, transmisioaz..."*



||| **KULTUR KOMUNITATEA** |||||

22 kultur talde. Azpeitian horrenbeste kultur talde daude, eta kulturako ia eremu denak jorratzen dituzte.

1.000 kide. Herrian dauden 22 kultur taldeetan kide, partaide, ikasle edo irakasle bezala, 1.000-1.050 lagun dabilta.

Beste eragileak. Kultur ekitaldiak antolatzen dituzten beste eragile batzuk ere badira: udala, Sanagustin, Gaztetxea, ikastetxeak, Baigera, auzoetako-eta festa batzordeak...

Norbanakoak. Taldeetan ez dauden kultur sortzaile asko dago Azpeitian: margolariak, idazleak... Publikoki ezezagunak gehienak. Haiekin ere hartu-emanen hasiko da Kultur Mahaia.

401 bazkide Kultur Mahaia.

2012an 400 bazkidera heltzeko helburua jarri zuen. 401 horietatik 378 norbanakoak dira, 22 kultur taldeak eta bat ohorezko bazkidea da (Imanol Elias Odriozola). Bazkidetzeko bada atal berezi bat sanagustinkulturgunea.net webgunean.

||| Kultur Mahiari buruzko weba: azpeitikokulturmahaia.com
||| Kultur albistegia: uztarria.com/kultura

Zein da zein?

Iep! Urte berriari aurpegi berria.

Joan da 2012a eta herri mailan urteko balantzea honakoa: EREak, kaleratzeak, etxe gabetzeak, murrizketak eta beste hainbat "ezinbesteko neurri". Argi dago urte berriak dakarrena, kaka zuretzako.

Oso erraza da neurri horiek justifikatzea hartzen dituenarentzat, agintzen dutenak dira eta (instituzioetan, enpresetan, banke-txeetan). Euren hitzetan gu izan gara gure aukeren gainetik bizi izan garenak (beraiek ez), eta ez dago bide horretatik jarraitzerik. Tamalez, erretolika hori da kalean dabilena, herritar-ron artean. Aginte makila izateak gauza horiek ziurtatzen ditu, herritarrak beren buruaren eta beren ingurukoaren aurka jartzen ditu, zatiketa eraginez eta hori naturala bihurtuz. Horri deitzen zaio hegemonia, nagusitasuna, dominazioa. Horrela besterik ezin da ulertu gaur egun jasotzen ari garen egurra oraindik ez dugula erre.

Herri mailara begiratuz, Corrugados-en kasuan, adibidez, enpresa horretako langileak urteetan lan baldintza oso onetan egon dira, eta orain hilabeteak daramatzate greban, lanpostuen alde borrokan. Errealitatea bakarra da, borrokan ari dira. Kalean, ordean, ozenen entzuten den diskurtsoa honakoa da: "Oin arte nun zaudean?", "hoyek zer usteieba, sekulako soldatak jasotzie bizi osoako dala?". Etorkinekin gauza bera: "Lanik eztiabe iten, lana lapurtze zigubek". Funtzionarioekin: "alper batzuk ditun"... Zatiketa, eta arazo, honela hasten da; gertakarien oinarrian dauden kausak ahaztu eta errudun egiten ditugu sufritzen ari direnak, modu natural batean.

Ez dakit argi al dugun gero eta herriko familia gehiago diru sarrerarik gabe geratzen ari dela, horrek horien bizi maila jaisten duela, dendetan, tabernetan, kontzertuetan, antzerkian, oro har, kalean gutxiago ibiliko direla, eta guk jasoko ditugula ondorioak. Azkenean, lanpostu gehiago galduko dira beste alor



|||||||hodei mendinueta|||


|||Zatiketa ororen gainetik, herritar gisa batzen gaituena ulertzea da aldaketak ematen hasteko lehen pausoa

batzuetan, herria ahalmen ekonomikoa gal-tzen ari baita. Eta hori ez dugu guk aukeratu.

Klase borroka

Zatiketa ororen gainetik, herritar gisa batzen gaituena ulertzea da aldaketak ematen hasteko lehen pausua. Langileak gara, zorpetuta gaude, ez dugu erabakimenik, duintasuna lapurtu digute... Hori da batzen gaituena. Langileak, autonomoak, nekazariak, ikasleak, funtzionarioak, etorkinak... gara GU. Banke-txe, enpresa handi eta politikari profesiona-lak BERAIEK, agintariak, lapurrak. Zein alde-tan zaude?

Beraz jar ditzagun jopuntuan banku, politi-ko eta enpresariak. KLASE BORROKA da hau, zapalduak eta zapaltzaileak, dominatuak eta dominatzaileak, esplotatuak eta esplota-tzaileak aurrez aurre. Gure zatiketa da be-rraien indarra, errudun egin nahi gaituzte, el-karren aurka jarri, egungo arazoaren muinari bizkarra emateko: langi-leen lanaren bidez sortzen den aberastasunarekin geratzea. Ez dute errukirik, kosta ala kosta jarraituko dute. Zurea da errua?*



URTE BERRI ON!

1.solairuan gaude

urrategideko

altzariak & sukaldeak



Urtarrilean **deskontu bereziak** sofetan.



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



círculo
muebles

Mundu 'grisa'

Mundu 'horia' pertsona 'horiek' osatzen baldin badute, mundu 'grisa' pertsona 'grisek'. Horiek gure bizia iluntzen dutenak dira, ezagunak edo ezezagunak, juxtu 'horien' aurkakoak. Esaldiak oparitzen dituzte bai, baina zur eta lur lagatzen gaituztenak. Pertsona horientzako aukeratu dudak kolorea, 'grisa' da, horrelako mundua lortzen baitute, neutroa, zuritik beltzera doan bidean erdian dagoena. Euriak, ekaitz-lainoak, eguraldi txarrak... kolore grisa dute, eta pertsona horiek oparitzen dizkiguten esaldiekin 'grisak' geratzen gara, ez aurrera, ez atzera, nola jokatu jakin gabe.

Beti izan naiz oso mugitua, gauza pilo batetan sartuta, eguna motza geratzen zitzaidan. Asteburua iristean, ordea, kalera irten, ondo pasatu, dantza egin, batekin hitz egin, jendearekin egon, afaria hemendik, bazkaria handik... Guztiok izaten dugu garai txarra, ordea, eta neuk ere izan nuen neurea. Ezagutzen nauzuen askok dakizuen bezala, nire ametsetako bat ama izatea zen. Denbora, mediku, hormona, negar... asko. Tratamendu garaia gogorra izan zen benetan, nahi duguna nahi dugunean lortzera ohituta gauden garai honetan, nahi izatea eta ezin! Lagunak, *standby*-n laga nituen, denbora batez abesbatza eta kirola ere bai. Ez nuen ilusiorik, neure munduan sartuta ez nintzen bizi! Ez nintzen ni!

Denbora pasatu zen eta pazientzia handiaz, azkenean, lortu nuen eta nire ama izateko ametsa azkenean bete zen. Baita bete ere. Alaitasuna berreskuratzeaz gain, lanera hasi, abesbatzeko entseguetara ekin, berriro ere kirola eta nola ez ba, nire lagunak, beti hor egon diren lagunak berreskuratuta nituen. Galduta nuen ilusioa aurkitu nuen berriro! Bizitzeko ilusioa!

Esaldi grisak

Umeak jaio eta Santo Tomas egunean, lehenengo aldiz, bi ordurako lagunekin atera nin-



|||||||nagore illarramendi|||

|||Askotan, pertsona 'grisekin' egiten dut topo, esaldi 'grisak' oparitzen dituztenekin


tzen. Dezente kostatu zitzaidan pauso hori ematea, badakizue, ama txarraren sentimendua... Txarri tabernara sartzen ari nintzela mutil bat gerturatu eta esaldi "gris" bat bota zidan: 'ERRAZENA EGIN DUZU, UMEAK EKARTZEA!'. Lur jota laga ninduen, ez nion ezer erantzun, ezin nuen eta sinestu...

Ahal denean kalera irteten naiz lagunekin, eta aspaldian ez bezala ondo pasatzen dut!

Kalean ikusten nauenak, gehienak poz hartzen du, baina askotan, pertsona 'grisekin' egiten dut topo, esaldi 'grisak' oparitzen dituztenekin: 'HIRU UMEREN AMA ETA KALEAN?'.

Garai hauetan horrelako esaldiak oparitzen dituztenak dira, oraindik ere txuriaren eta beltzaren artean, ondo eta gaizki dagoenaren erdian, lagatzen nautenak. Horiek dira nire pertsona 'grisak'. Horiek osatzen dute mundu 'grisa'.

Zer gertatuko litzatekela uste duzue ama izan beharrean aita izango banintz?*





Ukabi Store

Portatilaak

Tabletak

Windows

Zerbitzu Teknikoa

Web Diseinua

Apple

Programak

Linux

euskaraz bizi

nahi dugu

euskaraz
bizi
nahi dut



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



Iñaki Segurola.

ESANA DAGO

“Arrazoi bakarrak inoiz ez nau bete. Ez nau lasai utzi. Ez fedeak, ez erlijioak...”

“Literaturako hizkuntza estandarra beti iruditu zait geza eta hila; landua baina porlandua”

IÑAKI SEGUOLA idazlea

“Herri normalizatu batek hedabide propioak behar ditu komunitatearen informazio eskubidea bermatzeko”

IBAN ARREGI EKT-ko arduraduna



GORA. Esaldi gozoak, euskaraz, noski!

Gabonen atarian, herriko saltokien artean, Udalak antolatzen duen erakusleihu lehiaketan euskarazko esaldiak ikusi ahal izan dira. Bejondeizuela. [Uztarria](#)



BEHERA. Euskarak ez al ditu ba, lan kontuak ulertzen?

Krisi garaian lana eskainiz jendeak argi posteetan, paretetan edo bebarruan jartzen dituen iragarki mordoak ikus daiteke. Denak, ordea, gaztelania hutsean. [Uztarria*](#)



Zertarako gizondu



|||||||txetxu urbieta|||||||

Hizkiak josten hasi aurretik, lehendabizi Urte berri on! Bizitako bat gehiago, bizitzeko bat gutxiago. Bizitzaren legea. Aurrera egiteko atzera begira gehiegi egoterik ez omen da komeni. Ilek bezala zurituta egongo diren garunak lanean jartzea gustuko dut. Etengabe datozkit burura txikitako kontuak. Eta kontu berri-berriak egiten zaizkit, bizi berriak. Baina egutegiak ezetz dio, kontu zaharrak direla horiek, aurreko mendekoak. Atxuian errekekako jolasak, Pakorekin egin nuen aurreneko entrenamendua, estratako

futbol saioak, Aita Lekuonaren bolloak, Garmendipen irabazitako finala... dena, detailerik txikienaz ere gogoratzen naiz. Baina urteak pasatu dira, asko.

Gogoratzen dut sei urte nintuela Juanito lehengusua soldaduskara joan zela. 20 urte inguru izango zituen, niretzat gizona zen. Nik, egun, urte horiek bider bi ere baditut baina orduan gizontzat nuena ez dut neuregan isladatua ikusten. Gizon izateko bete beharreko baldintzak beteko ditudan arren (agian norbaitek zalantzan jar lezake hori) ez dut sekula

santan neure burua gizontzat ikusi. Orduan gizona izatea zerbait serioa iruditzen zaitzaidan, orain gizon izanda ez naiz gizon sentitzen; gazte adintsua, gizonetik baino umetik gertuago sentitzen naiz. Gauza bat izatea da eta bestea zarena sentitzea.

Buruko aberiak konpontzen dituzten profesional horiengana joan eta sofán etzan beharko dut. 'Zer daukat psikiatra jauna?'. 'Errealtateari ihes egin nahi diozu'. Ume jaio eta ume hil. Gizon izateak zertarako balio du ba?*

|||IKUSTEKO|||



▲EZ GALDU BURUA, ETA EGIN KONTSUMO ARDURATSUA.

Gabonetan mahaiaren bueltan egiten diren otorduak eta Olentzeroren eta Erregeen etorrera medio, 'burua galdu' eta neurririk gabe erosteko joera izaten dugu. Etengabeko kontsumoaren sindrome horri kritika egiteko helburuarekin, bi erosketa karro atera zituen kalera, gabon egunean, Gaztetxeko gazte problematika lan-taldeak. 🛒 Uztarrria 🗨️ Azpeitiko Gaztetxea*

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Zorionak eta animo!

ITZALEN SUA. Pozik irakurri nuen Fernando Morillok, Xanti Rodriguezek eta beste batzuen proiektuaren albiste. Tentagarria zen proiektua, baina are tentagarriagoa emaitza. Lan ona eta ausarta. Kolaborazio ikaragarriak. Egileak, laguntzaileak, irakurleak, babesleak, erosleak eta parte hartu duten guztiak zoriontzeta nahiko nituzke. Eta animo! Horrelakoekin hizkuntza, kultura eta literatura bizi-bizirik mantenduko da.



Oparitu edo erosi, baina kultura

BONUA. Kultura oparitzeko aukera polita izan da aurtengo gabonetan. Baita norberarentzat erosteko ere. Gogoan izango duzue Eusko Jaurlaritzak kaleratzen duen kultura bonua deritzona, 24 ordutan agortu zena. Baina, azpeitiarrok ere badugu jada gurea. Zelako txoltoa gainera, 58 euroren truke ia 160!



|||alex silva|||



Mayen hanka sartzea

MUNDUAREN AMAIERA. Baten batzuk behar baino txorizo eta sagardo gehiago hartu zuten San Tomasetan. Azkenekoa zelakoan edo! Mayen profeziarekin urtebeteko *kaka* eman digute, azkeneko, sinetsi ere egin egin genuen. Baina eguna amaitu ondoren, hori bai, inork ez zuen beldurrik pasa eh!



Gabonak argitzen

GABON ARGIAK. Abenduarekin iristen dira gabonak askorentzat, beste askorentzat, ordea, Udalak kalean gabonetako argiak jartzean. Baita niretzako ere. Eztabaida luzea izan daiteke krisi garaian argiak jarri behar ote diren edo ez. Baina eztabaida luzea da ere, argi horiek merkataritzan duten eragina. Nola asmatu? Zer egin?...*

Krisiaren alde positiboa



amagoia aizpuru

Berriro ere, Gabonak urbildu zaizkigu, eta kaleetan argiak piztu dizkigute. Gabonen benetako zentzua galdua dela esan daiteke, egun, kontsumoarekin erlazionatzen baititugu, beren benetako esanahia ahaztuz. Gizarte kontsumitzaile batean barneratuak gaudela esatea, ez da berria, baina, bai azkeneko urteetan sortzen ari diren aldaketak: krisi gordinaren aurrean, ardura gabeko kontsumoa arduratsua goa izatera bideratu da. Puntu honetatik abiatu, gure seme-alabak kontsumo arduratsu baterantz hezten ari al gara?

Azken urteetan, gizarte "super" kontsumitzaile batean geunden barneratuak. Zenbat

eta gehiago kontsumitu, zoriontsu izango girela sinetsarazi ziguten. Hau da, zoriontasunaren bidea, kontsumoan oinarritua zegoela. Horretarako, bikoteak familatik at, gero eta gehiago lan egin behar zuen, eta honek sortzen zituen hutsuneak; seme-alabekin gero eta gutxiago egotea... eta ondorioz, gero eta gehiago erosten genien gure seme-alabei, pentsatuz, "zulo" horiek konponduko genituela. Baina, hori guztiarekin zoriontasuna aurkitzen al genuen? Larunbat arratsaldetan ezin zen etxean geratu, zerbait erostera (zinemara, merkatal gunera...) edo nonbaitera joan beharra zegoen... Zer balore erakusten

ari ginen gure seme-alabei? Prestatu al ditugu, egungo krisiari aurre egiteko?

Egun, gizarte kontsumitzaile baten barnean jarraitzen badugu ere, kontzientzi handiagoa dugu kontsumoarekiko eta horrek eragina du seme-alaben hezkuntzan, kontsumo arduratsua bultzatzen ari baikara. Era berean, ohartzen ari gara, zoriontasuna ez dagoela kontsumoa edota materiaren gain; norbanakoaren gain baizik. Besteekin dugun erlazioan, gure lanketa pertsonalean... Eta guzti horrek pertsonaren eta haurren ongizatean eragina du. Beraz, esan daiteke, ekonomia-krisiak baduela bere alderdi positiboa ere!*

Zein familitakoa?



miren alcedo

Urarrilaren hasierak bi gauza on ditu: gabon jaien amaiera eta herriko danborrada atarian dugula, Azpeitiko festarik ederrena. Egun gutxi barru herriko kaleak danborradez beteko dira. Sukaldariak, arrantzaleak, pilotariak, kosakoak, tirolesak... kaletik paseatuko dira, dotore, erritmoa galdu gabe.

Desfile horrek paradoxa bat erakusten digu: alde batetik, San Sebastian bezperan kalean gauden azpeitiar guztiok jai bizitzen dugu era amankomunean. Eta, bestetik, norbera non dagoen kokatuta jakiteko aukera paregabea da, elkarte batean edo bestean desfilatzeak edo espaloian ikusle moduan egoteak herriko estrukturan norberaren

lekua mundu osoari erakusten diolako. Bizilagunak elkartzeko eta,aldi berean, sailtzeko errituala dela eta.

Galdera bat: zenbat etorkin ikus dezakegu desfile horretan? Eskoletan bai, kolore guztietako neska-mutilek bandera eramaten dute. Baina haien gurasoak zein elkartetan daude 19ko gauean?

Sansebastianak Gabonen eta Karnabalen artean ospatzen ditugu. Senideen kontrola jasotzeko garaia dira Gabonak, baina Inauterietako desmadrea gozatu baino lehen, hila-ren 19an kontrol soziala pasatu behar dugu. Hala, odoleko familiaren orde, aukeratutako familiarekin desfilatzen dugu. Edo ez?

Azpeitian, komunitate txiki guztietan bezala, lehenengo galdera izan ohi da: 'Zein familitakoa zara?'. Egiten dugunak ez digu munduan gure lekua ematen, gure erreferentziako taldeak baizik. Batez ere ezezagunak bagara, jatorria jakiteak identitatea ematen digu. Aia eta Azkoitia atarian eliza txiki bana, "humilladero" izenekoa, dago. Kanpotarrak ailegatzen zirenean gurutze aurrean burua makurtu eta otoiitz egin behar zuten. Horrela bazekiten mairuak edo juduak ez zirela eta herritarren konfidantza lortzen zuten. Egun, humilladeroen orde, "zein familitakoa zara?" galdera dugu. Eta benetako konfidantzakoa bazara, atabala zure zain.*

arte eta diseinu ikastegia

- Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura** 17:30/19:00
- Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

Iuba

Aholkularitza:
- fiskala
- liborala
- kontabilitza

Gestori lanak
Finan administrazioa
Gestio inbiliarria

Tlf.: 943 157 325 Faxa: 943 157 275
Empresen kaldea, 43 • iuba.arte@gmail.com

Kutxillo

Urdaiazpikoak, hestebeteak eta gaztak

KALITATEA MODU ONEAN

Enaut: 656 291 419 Gler: 818 240 173

Damasa Azkua plaza 6, Iteha
Tlf: 943 15 09 19
kutxillo@gmail.com



andoni salegi



Barkaien baño usteñat alper xamarrik ai haizela. Nere alde negatibue aldatzeko, igual beste nunbaitetik heldu berkoien.

Kartelak



Beñaut frantzesena

Lan finkoaren goxotasunetik jardutea erraza dela esan didate. Gu ez gaituela inoiz lan faltak kezkatuko, baldintza ezin hobekak ditugula. Hala ere, hemen guztion egoera doa okerrera.

Saninazioetarako abisatu ziguten ez zigutela aparteko soldatarik ordainduko, eta ordurako erabaki genuen aurtengo gabon eskean ateratako dirua nire aparteko soldata ordaintzeko izango zela. Ezin zitekeen bestela izan. Injustiziaren aurrean solidaritatea esaten zaio horri eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiet eske-lagunei.

Soinuari kartela itsatsita atera ginen: "Tal-deko funtzionarioaren paga-estra lortzeko gabon-eske berezia" jartzen zuen. Gustura ibili ginen, kalez kale, tabernaz taberna. Eta hurrengo urtean berriro errepikatzeko geratu gara. Helburua lortu gabe geratu gara, ordea. Jendeak eman zigun urdaiazpikoa, txorizoa, kalamareak, olibak, zurito batzuk, kolonia-ura... baina ez genuen zentimo triste bat ere jaso.

Ez, ez dugu zentimorik jaso. Izan ere, gure gabon eskean ez dugu dirurik eskatzen. Ez dugu txapelik pasatzen. Pentsa dezakegu

kartelak nahikoa izan behar zuela solidaritate uholde bat jasotzeko, baina ez, oso estimatzen ditugun zuritoak eta kakahueteak atera zizkiguten.

Eta borrokatzeko moduez gogoratu naiz, gauzak lortzeko egiten dugunaz eta egin beharko genukeenaz. Nahikoa ote den kartel baten atzean jartzea. Zilegi ote den geuk egin dezakegun guztia egin gabe besteri ahalegina eskatzea, txapela pasatu gabe jendea etorriko dela pentsatzea.

Bai, kartelek ez dute balio. Beste era batera lortu beharko dugu gurea dena.*

Iglu bat basamortuan (Lauroba)



Ane bastida

Urte berriarekin batera, Uztarrria atal berri batekin dator. Atal honetan hainbat diska, film zein libururi buruz mintzatuko gara.

Oraingo honetan, niri tokatu zait eta egiten dudana lehen idatzia izanik, nire taldeko azken diskoari buruz aritzea pentsatu dut. Aspaldian gehien entzuten dudana diskoa da eta taldekideok egindako lana goraitpatzea nahiko nuke. Eta nola ez, honekin, Laurobakoei eskerrak eman nahi nizkieke irakatsitako guztiagatik.

Taldeak, aldaketa handia jasan du beraien azken diskotik hona. Batetik, lau izatetik bost izatera pasatu dira teklatuaren doinuak barneratuz eta, bestetik, betiko beraien doinuak alde batera utzi gabe doinu desberdin gehiagorekin ausartu dira. Lan hau, zortzi estilo desberdinetako hamahiru

abestik osatzen dute, taldearen heldutasuna isladatuz.

Diskak kantu dibertsitate handia du. Entzutean, abestiek ez dute talde berberarenak ematen, beraien artean oso ezberdinak baitira, baina denek dute Laurobaren ukitua. Talde honen edozein abesti entzutean, nahikoa da erabiltzen dituzten gitarra doinuei edota Iker Laurobaren ahots bereziari erreparatzea, beraiek izaten jarraitzen dutela jakiteko.

Diskaren hamahiru abestietan, Antartidatik Basamortura pasatzen zara konturatu gabe. Abesti indartsuak, balada lasaigoekin tartekatzen dira; doinu pop-eroaz gain, powerpop, rock, elektronikak, new wave... bezalako doinuak erabili dituzte abestietan; horrez gain, pop doinuetan ohikoak ez diren instrumentuak ere barnera-


tu dituzte, hala nola, metalezko haize instrumentuak, hammond organoa, biolina, biola, perkusio soinu ezberdinak, eskusoinua...

Eta ezin ahaztu izandako kolaborazio anitzak. Hitzetan: Har-kaitz Cano, Itziar Ituño, Beñat Gaztelumendi... izan dituzte laguntzaile. Instrumentuetan: Odei Lizaso perkusioan, Fredi Pelaez hammond eta eskusoinuan, Monika Rubio soketan eta Pirata haizezko instrumentuetan. Eta Aiora Errenteriaren ahots indartsu eta goxoa Ez Zaudenetik abestian.

Beraz, disko desberdin bat nahi izanez gero, kontraste handikoa, estilo eta kolore aniztasunarekin, adin guztietarako, mamitsu eta ausarta... Hemen duzue Laurobaren azken diska *Iglu bat basamortuan*.

Besterik gabe, piztu belarria!*

KRITIKA 'Iglu bat basamortuan' diska



Disketxea. Oihuka.
Argitalpen urtea. 2012.
Abesti kopurua. 13.
Salneurria. 13,50 €.
Ezaugarria. Handitasuna kontrasteek ematen diote diskari.

AZKOITIA
 ERLOJU KONPONKETAK
 Arana, 5
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

urke ondo pasa san sebastianak
 ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK - salbe auzunea 35 telf 943 15 12 87 azpeitia

ostadar optika
 OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
 Jose de Arretxe, 17
 Tel. 943-810664
 AZPEITIA
 Ibai Ondo, 28
 Tel. 943-850445
 AZKOITIA

▼ **URTARRILA.**

Bertso Eguneko saioan, urtarrilaren 28an, iragarri zuen Imanol Lazkanok herriz herriko eta plazaz plazako ibilera urte horretan utziko zuela. Bertsolariak 60 urte egin ditu plazaz plaza.

▼ **OTSAILA.**

Iker Iparragirre hilaren 27an utzi zuten libre. 2005ean Azpeititik ihes egin eta 2007an Frantzia atxilotu zutenetik han preso egon ondoren, urtarrilaren 18an epaitu zuten.



2012a argazkitan

Uztarriak 'urtekaria' osatu du joan den urtean Azpeitian hilabetez hilabete jazotako gertakaririk aipagarrienetakoein. 📌👁️ Ainitze Agirrezabala



▲ MARTXOA.

Sanjose Trikiti Jaialdia ospatu zuten Soreasu antzokian, martxoaren 17an, eta Juan Ezenarro *Berastegi*, Luis Alberdi *Zabale* eta Manuel Arrizabalaga *Izer* pandero-jotzaileak omendu zituzten.

► APIRILA.

Ander E. azpeitiarra Amaia Azkueren hilketaren erruduna dela ebatzi zuen Donostiako Adingabekoen epaitegiak. Hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten –adin txikikoentzako zentro batean–, eta beste bost urte zaintzapeko askatasunean egingo ditu. Defentsak helegitea jarriko zuela iragarri zuen, baina hiltzaileak ez zuen helegiterik aurkeztu Auzitegi gorenean.





▲ MAIATZA.

Hamalau urteko futbolari profesional ibilbideari hilaren 12an esan zion agur Mikel Aranburuk, Valentziaren kontra Anoetan jokatuako norgehiagokan. Omenaldi beroa egin zioten taldekideek eta zaleak. Uztailaren 18an, berriz, herritarren omenaldia jaso zuen, Garmendipeko zelaietan.



▲ IRAILA.

"Azpeitia hobeago baten alde borondatez lan egiteko konpromisoa hartu duten" auzo alkateak irailaren 11n aurkeztu zituzten. Lasaoko auzo alkatea Mari Jose Azkue da; Xabier Mujika Matxinbentakoa; Urrestillakoa Anjel Mari Oiarzabal; Aratzerrekakoa Rosa Buldain eta Nuarbekoa, berriz, Jabier Gurrutxaga.

► URRIA.

Hondakin gutxiago sortzeko xedearekin, erosketetarako ontzi berrerabilgarriak edo *tupper*-ak banatu zituzten, Ekogunearen baitako 'Ontziratu zaitez' ekimenaren baitan. Bestalde, auto-konposta eta auzo-konposta bultzatzeko kanpaina aurkeztu zuen Mankomunitateak, azaroan.



▲ EKAINA.

Corrugados Azpeitiako langileek greba hasi zuten, ekainaren 15ean.



▲ ABUZTUA.

Abuztua ekimen urriko hila izaten da, baina oporrik eduki ez dutenak Corrugadoseko langileak dira. Itxialdia hasi zuten, hilaren 20an. Irailaren 14an erabaki zuten itxialdia uztea.





▲ UZTAILA.

Iñaki Errazkin izendatu zuen Gipuzkoako Ingurumen eta Lurralde diputatu, Martin Garitano ahaldu nagusiak.



▼ AZAROA.

Indarkeria politikoaren biktima gisa aitortu zituzten Anjel Otaegi eta Jon Paredes Txiki, hilaren 19an. Francoren erregimenak hildako azken presoak izan ziren, eta Eusko Legebiltzarreko batzordeak aitortutako lehen biktimak.



▲ ABENDUA.

Joxe Agirre 'Oanda' bertsolaria hil zen hilaren 15ean, 83 urte zituela. 60 urte pasa egin zituen bertsotan, plazan. Soreasuko San Sebastianen parrokia leporaino bete zen Agirreren azken agurrean. Bertsolaritzaren eta kulturaren munduko hainbat eta hainbat aurpegik bat egin zuten ehundaka herritarrekin, Oandaren hileta elizkizunean.

Amore eman gabe

Goizetik gauera aldatu zitzaien bizimodua Olaizolari eta Mendizabali. Eguneroko borrokan, bizitzeko indarra lagun, gogor dihardute. 📝📞 A. Agirrezabala

Naturaltasunez, gaitzaren krudeltasuna ezkutatu gabe, hitz egiten dute minbiziaz, Ana Mendizabalek eta Juanmari Olaizolak. Kantzerraren kontrako borroka, bizi-kalitateaz eta bizi-itxaropenaz aritu dira solasean, Uztarriarekin.

ANA MENDIZABAL

|||Adina. 56 urte. |||Minbizia. Kolonean sortu, uterora pasatu. |||Noiztik. 2006tik.

“Prebentzioa funtsezkoa da”

“Ondo nago; kantzerra dut, bai, baina bizi-kalitate ona dut. Kontrolatuta dago, eta hori kontrolatuta dagoen bitartean ondo ibiliko naiz. Zentzu horretan, lasai nago. Gaixotasun kronikoa bezala dut, sortzeko joera du eta ganean egon behar da. Hitz bera madarikatua da, baina dena da norberak nola daraman. Sei urte daramatzat istorio honekin, borrokan. Gora-beherak izan ditut; hiru tratamendu fase, guztira. Une honetan, tratamenduan nago, eta kimioa hartzen dudan astean –bi astean behin–, astelehenetik ostegunera

minbizia kasuetan, garrantzia handia du pertsonaren izaerak; optimista izateak lagundu egiten du

desagertu egiten naiz. Oso-gaizki egoten naiz, ohean. Larrosa bat bezala joaten naiz ospitalera, eta zimelduta etorri etxera.

Asier semea hil zenetik, jaiero Xoxotera joateko ohitura nuen. Egunerokotasunean ez nuen ezer nabaritzen, baina mendian betiko erritmoan gero eta nekatuago sentitzen nintzen. Analiak egin eta egundoko anemia azaldu zitzaidan emaitzetan. Neu konturatu gabe odola galtzen nuen gorotzetan. Hilekoa desagertuta nuen, beraz, digestio-aparatu

zeozer izan zitekeela-eta, ekografia egin zidaten, baina ezer ere ez. Kolonoskopia egin zidaten gero, eta han agertu zen tumorea. Mugitu nintzenari eskerrak; hiru hilabete beranduago gibela hartuta izango nuela esan zidan medikuak. Ebakuntza egin zidaten, kimioak eta radioa hartu, eta guztia bukatu zela lakoan, zortzi hilabetera, lanera bueltatu nintzen. Urtebetez bizitza normala egin nuen, baina 2007 bukaeran sintoma txiki batzuk antzeman, frogak egin, eta zapla! Kolonean hasitako minbizia hura uteroan sortu zitzaidan, eta berriro kimioak hartu behar izan nituen. Geroztik, mantenu-tratamenduan egon naiz, baina orain berriz handitu da tumorea, eta kimio tratamendua jasotzen ari naiz.

Hitz horri beldurra ikaragarria diogu. Minbi-ziaren prebentzioa azpimarratuko nuke nik, funtsezkoa da. Gaitz maltzurra da, eta isilik, azkar egiten du bere lana, eta hori bizitzeko beharrezkoak diren organoetara –bihotza, gibela, pulmoiak, burua...– ailegatzean ia berandu da, baina bitartean gorputzak ematen ditu abisu txikiak eta horiei kasu egin behar diegu. Anaiak beti esaten dit, san Xo-



Ana Mendizabal, bere etxeko egongelan, liburu bat eskuetan duela. |||Ainitze Agirrezabala

xoteri eskerrak eman beharrean nagoela.

Zergaitik niri? Zer egin ote dut ba nik gaizki? Galdera hori askotan egin izan diot neure buruari, baina neure burua ez dut pena horrekin zigortu. Ni ez naiz negar asko egitekoa. Hunkitu bai, jendearen babesa eskertzekoa da. Kolpe gogorra da, gizona eta alaba beti hor egon dira eta horrek negar egin arazten dizu. Ohitura onak dituen pertsona sana izanda ere, medikuek beraiek ere ez dakite zer faktorek eragiten duen. Hor badago leghenda bat, niretzako hala da, bizitzan pasatutako trauma, ezbehar eta disgustuek... horiek zeozer ekartzen dutela. Baina zenbat mila pertsona daude bizitza frenetikoa daramatenak eta minbizirik ez dute? Nik ez dut sinesten horietan. Jakin ezazu. Misterioa da hori. Nik uste dut giltzarria dela datorkiguna hartu, onartu eta horrekin bizitzen eta aurrera egiten ikasi. Kantzerrarekin aurrera egin al daiteke? Kontrolatuta duzun bitartean nik uste dut baietz; gaur egun osasungintzan ditugun aurrerapenekin egin daiteke aurrera. Seguru asko bere muga bat edukiko du. Nik beti pentsatu izan dut zahartzarora ez dudala uste ailegatuko naizenik. Eta zer egingo dugu ba. Bitartean ahal duguna disfrutatu eta biziko

dugu. Orain lasai bizi naiz: nobela historikoen zale amorratua naiz; Ken Follet, Toti Martinez de Lezea eta Matilde Asensi autoreen lanak ikaragarri irakurtzen ditut; paseatu asko egiten dut; lagun mordoa dut eta kafea hartzeko geratzen naiz... Minbizia duzula ezin da ahaztu, baina jarrera positiboa izatea oso garrantzitsua da. Kantzerra duzu, baina mundua ez da bukatu. Sei urte daramatzat eta begiratu oraindik ere nola naogen. Fedea eduki behar dugu dauden aurrerapenekin.

Okerrena kimio sesioak dira. Oso gogorak dira. Denek esaten didate gogorra naizela, baina indarra atera egiten duzu eta pertsona gogortu egiten da. Ez dago beste erremediarik. Operatzeraz, kristoren ebakuntza egin beharra dut. Pixa eta kaka egiteko poltsekin geratuko nintzateke, eta atera kontuak hori zer bizitza kalitate izango litzateken. Zentzu horretan, kezka duzu, tumorea hor dagoelako, baina momentuan, behintzat, ez da planteatu ere egiten. Beste pauso asko dauzkate oraindik ere ebakuntza aurretik. Hiru hilabetero joaten naiz minbizia kontrolatzeko azterketak egitera. Emaitez zer emango duten beldurtuta, dardarka joaten zara. Kezka handia da, bai; oso gogorra da hori ere.

Egunean egunekoa bizitzea, bizitza gehiago estimatzea, gozatzea... irakatsi dit gaixotasunak. Eta horretan familiaren eta lagunren babesak asko lagundu didate. Nik bizitzea nahi dut oraindik ere, eta errealista bazara indarra ateratzen duzu. Etorkizunerako ez dut kristoren proiekturik, baina gustatuko litzaidake alabak zer eboluzio ematen duen ikustea. Gizona ere laister jubilatuko da eta horren ilusioarekin ere bagoaude”.

JUANMARI OLAIZOLA

|||Adina. 58 urte. |||Minbizia. Ahoztarrikoa. |||Noiztik. 2003 bukaeratik.

“Botikarik onena norbera da”

“Ondo nago orain. Ez naiz kexatzen. Bizitza lasaia daramat; normala esaterik ez dago; normala balitz lanean ariko nintzateke eta. Ez naiz gauza lanerako eta baliaezintasuna emana didate. Orain, neure burua zaintzera dedikatzen naiz. Lehen, denak nire aurretik ziren, eta gaitz honek pixka bat hori irakatsi dit, aurrena norbera dela. Azkena egotetik aurrena egotera pasatu naiz. Aldaketa handia hor eman dut. Nik ez nuen espero gaur la- ▶

► nari utzi eta era honetara egongo nintzenik. Baina etapa hau etorri zait.


Belarriko infekzioekin nenbilen, etengabe. Baina medikuek ez zidaten ezer ere bilatzen. Egun batean hortzak garbitzen ari nintzela, odol asko hasi zitzaidan ahotik. Itxura txarra zuen, gaitza mingain azpia jaten ari zen. Frogak egin, eta biopsien emaitza bila joan nintzen Zumarragara. Kontsultan medikua zain nuen, akolitoak bezala albo banatan bi erizan zituela. Haiek ezer esaterako hartu nuen nik usaina. Tumore bat azaldu zela eta azkar operatu behar nindutela esan zidaten. Kontsultatik ateratzean esan nion emazteari, 'beno, entzun duzu zer dagoen, eta orain honen kontra borroka egin beharko dugu'. 2003ko loteriararen egunean esan zidaten zer nuen. Urteberri egunean ingresatu ninduten, eta hilaren 2an operatu. Itxura denez, bere txarrean ere badu, ordea, zerbait ona nire gaitz honek. Orain artean kimioak hartzetik libratu egin naiz. Orain, horixe, berriz sortu egiten da eta hiru hilero egiten ditut azterketak.

Nik kontsultan kirolari asko hartu izan dut, eta onak ez ziren gaixoketa asko detektatu ere bai. Nik gela honetan hainbeste gauza ikusi dut..., eta orduan pixka bat positiboa izan naiz gaitz honen aurrean. Noski, nik ez dut esango ausarta naizenik. Ni ere urduri jartzen naiz, baina nahikoa lasai hartu dut. Kontziente naiz ez dela gripea. Hitz horrek beti ematen digu errespeta. Badakigu zerrekin jokatzeko ari garen.

Gaitza aho-eztarrian, aurpegian dut eta burura joko zuen beldurra zuten medikuek. Orduan horko nerbio, muskulu... guztiak moztu zizkidaten. Niretzako traumatikoa izan zen operatu eta gero neure burua ispiluaurrean ikustea. Ez zara zu. Munstro bat zara. Eta hori ikusita, horrekin bizitzeko segitzea... Denok dakigu gorputzeko ispilua aurpegia dela, eta nik ispilua horrekin irten behar dut kalera. Oso gogorra egin zait zentzu horretan.

Beti izan naiz norbere burua eta osasuna zaintzekoa. Kirol asko egindakoa naiz; elikadura orekatua izan dut; erre inoiz ez dut egin; edan ahal dudana gutxiena... 50 urtera arte ez dakit aspirinarik hartu ere egingo nuen. Ikusi zer bizitza eman dudana eta 'zergaitik niri' galdera, ba bai, egin diot neure buruari. Nik askotan esaten dut ume txiki batek zer egin duen minbizia edukitzeko. Baina, mundu honetan arriskuan denok gaude.

Beti positiboki pentsatu behar duzu, eta esan, 'beno, horrela nagok, baina irtengo diat, hobeto jarriko nauk'. Madrilerako joaten naiz; kirurgia plastikoa goren mailakoa



Juanmari Olaizola, masajeak emateko bere kontsultan. ■ Aintze Agirrezabala

den ekipo zoragarria dut han. Hemen ez daude oraindik prestatuta horretarako. Asko lortu dut, eta oraindik esperantza dut gehiagorik lortuko dudala. Bederatzi urtean zortzi aldiz sartu naiz kirolan. Ebakuntzarik luzeena hamaika ordukoa izan da, Madrilen.

Gaur esaten da minbizia dominatuta dutela. Nik esango nuke ezetz. Laborategietan eta lan asko egin dute eta bizia luzatzea lortu dute, baina... Orduan, nik beti esaten dut botikarik onena norbera dela. Ibiliko zara medikurik onenarekin, emango dizute medikamenturik onena, baina zure aldetik negatibotasuna ipintzen baduzu, ez dago medikurik horri bueltarik emango dionik. Eta, askotan esaten da, familiaren babes behar dela eta zera, baina norbere indarrak, horrek balio du. Babesik onena norbera da, eta norberak egin behar du lana. Nik badakit igoal nik baino gehiago sufrituko zutela nire emazteak eta alabak. Ez zara gauza ezertarako, eta ez dakizu beraiek zenbat egiten duten zuregaitik. Beharbada, nik gehiago sufrituko nuen emazteak edo inguruko batek hau izan balu, neuk eramanda baino.

Eskerrak eman beharrean gogo. Osasuna-

ren mundu horretan jende profesionala dago. Egia esan, hor eduki genuen akats bat. Hirugarrenegoz sortu zitzaidanean, onkologiko zaharretik berrira aldaketan ari ziren; eta zaharreko kirola jendearekin okupatuta eta berrikoak artean martxan jarri gabe zuden. Hor egun batzuk galdu genituen eta gaitza lanean ari zen. Gainera, galopantea zen. Orduan bai, kirolan joan nintzen pentsatuta ez nintzela aterako. Han oso estu ailegatu nintzen. Baina, pasatu zen.

Ni mundu honetan pribilegiatua naiz. Nik beti esaten dut, zenbat jende dago ohean, jaikitzeko gauza ez eta besteren laguntza behar duena. Eta ikusita oraindik ere neure burua defendatzen dudala, nahi dudana bere neurri batean egitera iristen naizela... zer gehiago eskatu behar duzu? Lehenago egin dituzunak egin dituzu, eta orain egin itzazu ahal dituzunak. Ahaztu zer duzun eta 24 ordu okupatu. Bigarrenez operatu nindutenean margotzen hasi nintzen. Erosi nuen materiala, hasi nintzen jolasean eta begira... ordu pila bat eskaintzen dizkiot eta eskerrak horri. Koloretan irudikatzen ditut nire barneko sentimenduak. ✨

OLAIA MENDIZABAL Donostia Ospitaleko onkologiako erizaina

“Gaitz horretatik oso jende gutxi Libratuko da; edonoren etxera etorri daiteke”

||| Minbizia duten gaixoekin lanean hamar urte daramatza. Gaitz “krudel” horretaz, tratamenduez eta bere esperientziaz aritu da.

Horrelako lan batek zer suposatzen du, pertsonalki eta profesionalki?

Besteei laguntzeak bete egiten du, baina gaixoa gaztea bada zer pentsatua ematen dizu. ‘Hauxe gauetik goizera bizimodua aldatzea’, pentsatzen duzu. Gaixoa den bezalakoa izanda, bigundu egiten zaitu eta afektu berezi batekin tratatzen duzu. Lehen ikaragarri gogorra egiten zitzaidan ikustea jendea zer gaizki hiltzen den. Jende batek esan izan digu: ‘Zuek balio duzue!’. Gu mahaia- ren beste aldetik gaude, ordea. Gauza bat da profesionala izatea, baina etxera etortzen denean...

Zure esperientziaren arabera, gaixoei nola egiten diote aurre minbiziari?

Batzutan familiak esaten dizu ezer ere ez esateko, ez dakiela eta ezer. Nola ez esan ezer? Nolanahi ere, norbere burua nola dagoen, zertaraino gaizki dagoen, gaixoak baino hobeto inork ez daki. Errealitateari uko ez egitea garrantzitsua da. Gaixoak gaizki dagoela esan eta askotan erantzuten zaio: ‘Beno, utz iezaiozu horrela hitz egiteari. Mehoratuko zara’. Beldurrak, kezkak... ditu, baina husteko premia du. Familia-koekin garbi hitz eginda, uste dut gaixoak askoz ere hobeto eramaten duela. Gero, pertsonaren iza-erak ere zerikusitua handia du.



Zer da garrantzitsua minbizia duen gaixoa tratatzeko garaian?

Gaixoa inplikatzeko. Askotan joan, jartzen dira, eta kito. Baina zuk jakin behar duzu zer tratamendu hartzen ari zaren, zer ondorio duen eta zeozer ondo ez badao zer baliabide dituzun. Noski, erantzunkizun guztia ez du gaixoak hartu behar bere gain; garrantzitsua da familiaren babesa.

Ez al zaizu iruditzen oraindik tabu bat dela minbizia?

Gaixoari ezer ere ez esateko eskatzen duten familiak badira oraindik. Baina hainbeste entzun eta ikusten da, uste dut jendea kontziente dela edonoren etxera etorri daitekela. Oso jende gutxi libratuko da gaitz horretatik, eta gradu batetan edo bestean, inguruan tokatuko zaigu. Noski, beldurra hor dago, oraindik ere minbizia heriotza delako.

Horrela al da hori?

Lehenago harrapatzen dira gaixotasun batzuk, tratamendu hobeak daude, protesiak... baina guztiz sendatzeko bideak ez dira lortu. Bularreko eta koloneko minbiziak detektatzeko frogak egiten dira, baina oraindik, biriketako eta buruko gaixotasunak zenbat harrapatzen dira garaiz? Oso gaitz engainagarria da eta askotan diagnostikatzen da dena pasatuta dagoela. Bizitzeko ezinbestekoak diren organoen kasuan, asko murrizten da bizi-esperantza.

Zer egiten zaie gogorrena gaixoei?

Batzuek nahiko gaizki eramaten dute tratamendua –kimioak–, edo ebakuntzaren ondoriozko itxuraldatzea –bularra kentzea, hesteetatik operatzean poltsa jartzea, jan ezin eta jana sonda bidez sartzea...–. Azken horrek, gainera, dependetzia sortzen

du, eta zer bizi-kalitate da hori? Berriz erortzeko beldurra. Eta behin kasua aurreratua denean, sufrimendu handia. Batzutan iruditzen zaizu gaixoa ia nekatuta dagoela eta nolabait heriotza ikusten duela irtenbide bezala. Beste batzuk, berriz, ikasi egiten dute gaixotasunarekin bizitzen. Esaten dizute, “niri hauxe etorri zait, nola edo hala frenatuko didate eta berriz ateratzen den arte, beste tregoa bat”.

Hamar urteotako esperientziaren arabera, gaixoen tipologiaz zer esango zenuke?

Bularreko minbizia da gehien tratatzen dena emakumeetan, eta prostatakoa gizonetan. Baina emakumezkoetan gehiena hazi dena biriketako da. Horrek tabakoarekin du zerikusitua handia eta emakumea independizatu eta gehiago erretzen hasi den neurrian hori zenbakitan ikusten da.

Eman dizu atentzioa datu-oren batek?

Lehen pentsaezina bazen ere, gaur egun, laurogeitaka urtekoak ere kimioekin tratatu egiten dira. Badirudi denok ailegatu behar dugula 90 urtera, eta, gainera, ondo. Hori lehen ere ez zen hala, eta gero ere ez da hala izango.

Bailara honetan dago zabaldua beste herrietan baino kantzer kasu gehiago ematen dela Azpeitian.

Ez dakit zenbaterainoko funtsa duen horrek. Nik garai batean Ermuagatik horixe esaten nuen. Hori gehiago da igoal guk dugun ustea. Esaterako, duela gutxi inguruan kasu konkretu batzuk eman dira, eta ez dakizu bolada batetan geratzen den, kasualitate den edo...*

Ainitze Agirrezabala

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943.15.16.40

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

**lentzeria
mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...


Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Espetxean edo erbestean hainbat urte eman ondoren, etxeratzean preso eta iheslari ohi guztiek jasotzen dute herriaren ongietorria. Alabaina, bizitza berriz eraiki behar izaten dute ia hutsetik, eta horretan ez dute guztiek erraz asmatzen. Kasu guztiak desberdinak dira, noski, baina egunerokotasunean hainbat arazo eta beharrek egiten dute topo.

Esperientzia horietatik abiatuta, eta antzeko bizipenak izan dituztenak bidelagun, preso ohi laguntza asistentziala emateko elkarte bat sortu dute, Euskal Herri mailakoa: Harrera. Era berean, herriz herri elkartasun sareak antolatzen eta koordinatzen ari dira. Azpeitian iaz, azaroaren 29an, aurkeztu zuten elkarteak, Sanagustinen. Elkartearen sorreraz, helburuez eta aurrera begirako asmoez hitz egin du Uztarriak Iker Iparragirre eta Xabier Etxeberria 'Txapi' preso ohiekin eta Joxemari Aizpuru taldeko laguntzailearekin.

“Lurreratzea erraztea” helburu

Kartzelatik irtetean arazo eta behar asko ager daitezke, Etxeberriaren esanetan: “espexitik atera orduko agiri asko zuzendu beharra dago: NANA berritu, INEMera joan, diru-laguntza eskatzeko izapideak bete... Horiez gain, zenbaitek etxebizitza beharra du. Kartzelan 20-30 urte pasatu duen jendeak, berriz, ikusmen eta aho-arazoak izaten ditu, besteak beste, eta askotan hainbat gasturi ezin izaten die aurre egin. Lurreratze hori



Argazkian, goian, ezkerretik eskubira: Joxe Aranburu, Gotzon Aranburu presoaren aita; Joxin Arruti preso ohi; Angeles Artola deportatuaren anaia. Behean, ezkerretik hasita: Iker Iparragirre, Xabier Etxeberria 'Txapi' eta

Elkartasun sarea

Preso eta iheslari ohiak herrira itzultzean hainbat arazo izaten dute egunerokotasunean. Integratzen laguntzea du xede Harrera elkarteak. 📝📷 A. Agirrezabala



a; Joxemari Aizpuru 'Etxaun' taldeko laguntzailea; Mila Bergara senidea, eta Jose Inazio Artola 'Kapeto', Maria Olatz Izagirre preso ohiak. ||| Ainitze Agirrezabala

errazagoa eta erosoagoa izan dadin laguntzea du xede elkarteak. Nolanahi ere, herrira ailegatzean, lana bilatzea edo ikasketei heletzea bezain garrantzitsua da familiaren eta lagun babesa izatea. Zentzu horretan gu pribilegiatuak gara".

Hain zuzen ere, preso ohiak "lan munduan txertatzea" da elkartearen lehentasunetako bat, Aizpuru azpimarratu duenez. "Bizi dugun egoera sozio-ekonomikoa ez da bate-re xamurra, eta egia esan une honetan lana bilatzea ez da erraza, baina jende honi lanpostua eman asmoz, elkarte harremanetan hasia da enpresa, eragile politiko, sozial eta sindikalekin". Jorrotutako bidea dagoeneko ari da bere fruituak ematen; lan eskaintzak jaso dituzte, eta dagoeneko hainbat preso ohik lana lortu dute.

Horretarako, elkarteak maila nazionalen premia larriena duten kasuak detektatu eta lehentasunak markatzen ditu. Iparragirrek gaineratu duenez, "behar horiek oso ondo hautemanda daude, eta hori guztia antolatu eta martxa hartzeak kristoren lana badu ere, norabide onean pauso sendoak ari da ematen elkarte. Lehen hilabeteetan hori da, hain zuzen, elkartearen helburuetako bat, jendartean erreferentzia irabazten joatea".

Laguntza, diruz nahiz bestela

Harrera talde nazionalari laguntza emateko asmoz, Azpeitian ere lan-talde bat abian da, eta haren zereginetako bat diruz lagundu nahi duen jendearengana heltzea da. Ekarpene ekonomikoa egiteko modu bat baino gehiago dago: urtean 60 € ordainduta elkar-

||| DATUAK |||||

60 euro/urtean. Elkartea diruz lagundu nahi izatera, bi aukera daude: bazkide egitea, edo elkarteari nahi den diru kopurua ematea. Harremanetarako, deitu 609532159 zenbakira, edo zuzenean herriko preso ohiren batekin hitz egin.

100 presotik gora. Kaleratu dira azken urtebetean, Euskal Herrian.

5 preso eta 3 errefuxiatu herrian. Juan Karlos Arruti 'Patera', Gotzon Aranburu, Jabi Agirre, Joseba Segurola eta Joseba Urbieto 'Pow' preso daude; Inaki Etxarte eta Maria Angeles Artola deportatuta, eta Juan Manuel Bereziartua ihes eginda.

teko bazkide izatea da bat, eta bazkide izan gabe, elkarteari nahi den diru kopurua ematea bestea. Arazoa ez da arlo ekonomikora bakarrik mugatzen, ordea, eta badaude beste era bateko laguntzak ere. Hala, elkarte "era guztietako ekarpenei dago irekita, eta batenbat dentista bada, edo psikologia alorrean aditua, duen ezagutza horrekin lagundu dezake".

Zentzu horretan, "elkartearen izaera irekia" azpimarratu nahi izan dute. "Harrera ez da eragile politiko bat, ez gaude esparru batera itxita, eta irakurketa politikoetatik at, gizarte osora gaude zabalik".

Ate bat zabaltzeko esperantza

Ildo horretan, elkarteak une honetan sortu izanak lotura zuzena du preso eta errefuxiatuen inguruan iritsi litekeen akordioarekin. Iparragirren esanetan, "elkartea duela hilabete gutxi sortu izana ez da kasualitatea. Egoera politikoa zein den kontutan izanda, epe motzertain batera aurreikusten da, martxoan Ines del Rioren aferak ate bat zabaldu lezakela, eta Parot Doktrina bertan behera geratzen bada, kolpetik espetxean 20 urte gora edo heritik kanpo urte mordo daramatzaten preso eta iheslari mordo etxeratuko lirake. Kasu horietan, gainera, kontutan izan beharrekoa da, adinean oso aurrera doan jendea izango dela".

Abagunea erabakigarria da, eta presoak eta iheslariak etxeraten direnerako "aurrelari bat" eginda izatea nahi dute.✳



aiora olaizola

ihintza elustondo



amets cañizares



Koloreztatuz

Aiora. Urte berri on!

Amets. Iritsi zaigun 2013a ere neskak!

Aiora. Bai, nik ez dinat ederki hasi ordea!

Ihintza. Zer dun ba?

Aiora. Ia atragantatu nindunala rosakoarekin!

Amets. Hik zer egiten dun urte berri egunean roscoa jaten?

Aiora. A hi, nik behin gabonak hasten direnean egunero jaten dinat!

Ihintza. Egunetik egunera gutxiago uleretzen haut. Beno eta zein promesa egin dituzue urte berrirako?

Amets. Urte oparoa, magikoa izatea.

Aiora. Urte desberdin bat, berezia. Hik?

Ihintza. Jesus! Zelebreak zarete gero! Nik, osasuna, maitasuna eta zoriona eskatu dizkinat! Behar den bezala.

Aiora. Beno, beno, 2012ak behintzat opari polit bat egin zigun.

Ihintza. Arrazoia daukan, hirurok kale kantoiz kale antzerkia egiten ibili gaitun.

Aiora. Bazter guztiak koloreztatu dizkinagu.

Ihintza. Hemendik aurrera Uztarriako orria ere koloreztatuko dinagu.

Amets. Zuekin den bitartean aurten ere beste hainbat txokotara iristea espero dinat!

Ihintza. Ireki ditzadan begiak.

Aiora. Ireki itzazu zuk ere.

Amets. Begiratzen zaitut.

Ihintza. Begiratzen nauzu.

Aiora. Entzun zaitzaket. Sentitu.

Amets. Elkarrekin gaude.

Ihintza. Koloretako ortzadarra margotu genezake.

Aiora. Horia, eguzkiaren epela.

Amets. Laranja, bizitzeko gogoia.

Ihintza. Gorria, zure irribarrea.

Aiora. Arrosa, zure masail potxoloak.

||| **AIORA.** “Opari polita egin zigun 2012ak. Bazterrak koloreztatu dizkinagu”

||| **IHINTZA.** “Arrazoia dun, hirurok kalez kale antzerkia egiten ibili gaitun”

||| **AMETS.** “Hemendik aurrera Uztarriako orria ere koloreztatuko dinagu”

Amets. Morea, askatasunaren kolorea.

Ihintza. Urdina, itsas olatuen brisa.

Aiora. Berdea, belarra, natura, izatea bera.

Aiora. Zeruan zabaldu dira gure koloreak.

Amets. Ortzadarrak bete du ortzi osoa.

Ihintza. Eta zeruaren azpian ikusi zaitut. Zu, berriro.

Aiora. Entzun zaitut. Sentitu.

Amets. Elkarrekin gaude.

Aiora. Izan gaitezen koloreen lapur bakarrak.

Amets. Mundua kolorez margotzeko.

Ihintza. Beti zurekin.

Aiora. Elkarren ondoan.

Amets. Ortzadarra bezala.

Ihintza. Zeruan. ✘




ONDO PASATU SANSEBASTIANAK

2013



Hondamendia ate joka

Aintzinako Jainkoak eta gizakiak aurrez aurre jartzen dituen 'Itzalen sua' istorio apokaliptikoa disko-liburuan aurkeztu dute. Sanagustinen ikusi ahalko da, hilaren 10ean.  Ainitze Agirrezabala

Xanti Rodriguez argazkilari profesionalak eta Fernando Morillo idazleak argitaratu duten *Itzalen sua* disko-liburua aurkeztuko dute, Sanagustinen (19:00). Aurretik, azaroaren 30ean, Durangoko azokan aurkeztu zuten.

Diabulus in Musica talde nafarrak jarri dio soinua banda Gaumin argitaletxeak ekoiztutako DVDari. Heavy estiloko musika egiten duen talde nafarrak kontzertua eskainiko du, aurkezpen egunean, 22:00etan. Sarrera bost euro kostako da.

Itzalen sua proiektuan antzezle lanetan aurpegi ezagun asko aritu dira: Iban Garate, Oihana Maritorea, Ander Lipus, Xabier Euzkitze, Nerea Garmendia, Aitor Gorosabel, Estitxu Fernandez, Joan Mari Irigoien, Ilaski Serrano eta Xabi Bastida, eta baita azpe-

DATUAK

Zer. 'Itzalen sua' disko-liburuaren aurkezpena.

Eguna. Urtarrilak 10 (osteguna). **Ordua.** 19:00etan aurkezpena eta 22:00etan kontzertua

Tokia. Sanagustin kulturunea.

tiarrak ere: Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi, Idoia Uranga, Erika Olaizola, Ane Arenas, Igor Aranbarri eta Kepa Urbietta.

Morillok idatzi du Jainkoak eta gizakiak aurrez aurre jartzen dituen istorio apokaliptikoa, eta Rodriguezek iruditan jarri du guztia.

Libururako ateratako argazkien erakusketa jarriko dute Sanagustin kulturunean bertan, eta hilaren 31 arte egongo da ikusgai.*

'ITZALEN SUA'

17

aktore. Gaumin argitaletxeak ekoiztutako proiektuan antzezle lanetan herriko zein kanpoko aurpegi ezagun asko aritu dira.

20,48

euro. Fernando Morillok idatzi eta Xanti Rodriguezek iruditan jarri duen disko-liburuak 20,48 euro balio du.*



Xabier Euzkitze telebistako aurkezlea, aintzinako Jainko baten paperean. **Itzalen sua'**

BESTERIK

1 'Artetik artera' erakusketa

Juanmari Olaizola herritarrak 40 artelan inguru jarriko ditu ikusgai. Ofizioz masaje-emailea, minbizia azaldu ondoren hasi zen margotzen.

Eguna. Urtarrilaren 12tik 27ra.

Ordua. Astegunean: 18:00etatik 20:00etara. Asteburuan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara **Tokia.** Betharram aretoa. **Antolatzailea.** Juanmari Olaizola.

2 Ruper, kontzertuan

Ruper Ordorika oñatiar abeslariaren rock eta pop doinuak zuzenean entzuteko parada izango da. Sarrerak salgai daude iada Sanagustin kulturunearen webgunean: 12€tan eserita, eta 10€tan zutik.

Eguna. Urtarrilak 12 (zapatua). **Ordua.** 22:30 **Tokia.** Sanagustin kulturunea. **Antolatzailea.** Orkatz Kultur Elkartea.

3 Juan Vaelloren hitzaldia

Hitzaldia eskainiko du Juan Vaello pedagogoak. Guraso, profesional, nahiz gaian interesa duen ororentzat izango da eta galderak egiteko tartea ere izango da bukaeran.

Eguna. Urtarrilak 16 (asteazkena). **Ordua.** 18:30. **Tokia.** Sanagustin. **Antolatzailea.** Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia B.H.I.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena


- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

||| **SOLUZIOAK** |||

HITZ GEZIDUNAK

O	K	A	L	E	Z	E	•	O	K	•
K	A	I	U	•	A	R	E	S	A	H
•	I	R	A	K	I	R	•	A	N	•
A	R	O	A	•	A	E	S	I	Z	•
O	A	L	•	A	I	B	•	E	T	•
A	I	G	E	D	I	N	Z	A	I	E
K	A	K	I	N	U	A	E	R	E	•
A	T	A	•	U	Z	•	E	R	T	•
K	A	K	A	R	I	Z	A	B	I	A
•	B	•	I	•	E	•	•	•	•	•



HITZ GURUTZATUAK

E	J	A	N	A	R	G	N	E	
D	•	N	T	A	U	K	L	E	
L	•	A	I	L	O	R	H	A	T
A	•	P	A	N	D	A	Z	E	U
E	•	Z	A	L	E	A	R	T	E
R	•	B	A	R	A	B	A	T	R
O	•	L	A	•	K	U	L	A	S
U	•	A	K	A	T	•	O	R	A
A	•	I	A	•	S	O	F	I	A

||| **ZEIN DA?** |||



||| **ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA.** Urtarrilak 21 (astelehena) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Odriozola upategiko ardo sorta ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| **ZEIN DEN ADIERAZI.**

||| **ZURE IZEN-ABIZENAK**

||| **TELEFONO ZENBAKIA**

||| **UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA** |||

ZEIN DA?

IMANOL BADIOLA, ERREMONTISTA OHIA

IRABAZLEA



Beñat Agirretxe Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 145. irabazlea. Odriozola upategiko ardo-sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Beñat Agirretxe, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

gabonetako otarrak eta opariak egiten ditugu



Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

ELKARRIZKETA DIGITALA xanti rodriguez (argazkilaria)

“Eskuartearen dudana Lehenengo proiektua nire estudio berria martxan jartzea izango da”

Fernando Morilloekin batera gauzatu duen 'Itzalen Sua' liburu-DVDaz ez ezik, hainbat kontutaz aritu da Rodriguez. NAN-eko argazkiak, orain arte egin dituen lanak eta aurrera begirako proiektuak, amets eta amesgaiztoak izan ditu hizpide, besteak beste.

Nolakoa da argazkilaritza munduan zabiltzatenon arteko erlazioa?

Egia esan, batik bat profesionalen artean ez dut erlazio oso onak ikusten. Agian, gaur egun gauza aldatuz doa, baina lehen, profesionalen artean ez zen txintik ere kontatzen. Askok ez zuten webgunerik, alboko argazkilariek kopia-tuko ziolakoan. Niri beti gustatu zait dakidana erakustea, hurrena norbaitek neuri zerbait berria jakinaraztea espero baitut. Hala ere, kontua duela urte batzuk baino hobeto dago arlo horretan. **'Itzalen sua' zer moduzko esperientzia izan da?**

Paregabea. Proiektu handia izanda, jende askok hartu du parte eta guztiek kristoren ilusioa erakutsi dute gurekin lana egiteko. Oso arto gaude lanarekin eta baita ere partaide guztien ekarpenarekin. Esperientzia mundiala izan da!

Durango azokan egon zarete. Zer moduzko harrera izan duzue? Plaza ona al da?

Harrerarekin gustura gaude, salmentak ondo joan dira, baina



gehiena bete gaituena izan da jendeak proiektuari emandako babesia. Liburua soilik ez dela ikusita, jende askok harridura eta miraspena erakutsi digu, garai gogor hauetan proiektu berrizaille bat sortzeagatik. Durango plaza Euskal Herriko indartsuena da, baina orain lan asko geratzen zaigu lana aurkeztu eta merezi duen zabalkundea emateko.

Aurrera begira proiekturik ba al duzu eskuartearen?

Lehenengo proiektua nire estudio berria martxan jartzea da, otsailean. Horrez gain, baditut esku artean hainbat proiektu: bideo-klip pare bat eta laburmetraia bat ekoiztea. Laburmetraia 'Itzalen Sua'-ren ildotik joango da eta argazkietan erabiltzen duten infografia mugimendua duten irudiekin nahastea izango da erronka nagusia. Lan zaila izango da nahi dudana lortzea, baina buru gogorra naiz horretan...*

EFEMERIDEAK

1830

Herriko behartsuak sukaldarako egur gabe zeudela ikusita. Agintarietako laguntza eskatzea erabaki zuten elizgizonari, komentuei eta herritar bereziei.

1876

Azken Udala karlista osatu zuten herrian. Joxe Inazio Beristain izendatu zuten alkate.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.
Egilea: Imanol Elias Odriozola.
Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK



Izenburua eefefefee.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albistea |||irakurleen erantzunak |||argazki bildumak |||bideoak |||komunitatea |||inkestak |||agenda |||bitxikeriak
 |||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
 PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...



|||sartu, eta hartu parte |||egunero **2.000** bisita pasa (9.000 orri)

Kanela

Esiako Sri Lanka irlan du jatorria, eta erramua-
ren familiako zuhaitza da. Kanela zuhaitzaren ada-
rretatik lortzen den esentzia oso usaintsua da, anti-
septikoa, soineko infekzioaren aurka borrokatzeko
egokia; zizareak suntsitzen eta liseriketa errazten
du eta bihotzaren funtzionamenduari eta biriken ar-
nasketari laguntzen dio. Horrela uler daiteke Euro-
pako jendearen afan hura Asiara bidaiatzeko. Gaur
egun urrea edo arri bitxiak estimatzen ditugun beza-
la, orduan ekialdera edo Amerikara espezie bila joa-
ten ziren. Hortik etorri zen munduari bira ematea eta
beste hainbat lorpen.

Kanela da sukaldaritzan gehien erabiltzen den
espeziea. Zuhaitz-adarrak dira, ondo ebaki eta bil-
duta salgai ikusten ditugun kanela zotzak.

Hasieran medikuntzan erabiltzen zen, baina gaur
egun sukaldara pasatu da eta jaki ugariren osagarri
dotorea da; adibidez, arroza esnearekin, sagar edo
udareak ardoarekin...

Ez dezagun ahaztu adar gazteen azalak direla kane-
laren lehengaia, eta ez dela berritzen kortxoare-
kin gertatzen den bezala; hori ikusi izan dut Getaria
eta Zarautz artean. Hain urrun eta hain hurbil.

Asko edo gutxi, kanela onuragarria
da osasunarentzat; katarroa nahiz
erreuma kasuak sendatzeko.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

XANTI ARRIZABALAGA mediku-naturopata



1. Aurreneko egitekoa?

Historia kliniko-emozionala;
sintometan geratu gabe.

2. Ohiko kontsulta?

Nerbio-sistemak eragindako
egoerak: familia-arazoak...

3. Zer erabiltzen duzu?

Bitaminak, mineralak,
sendabelarrak, homeopatia.

4. Eta, farmakoak?

Batzutan beharrezkoak dira.
Guk botiken albo ondorioen
eraginean ere laguntzen
dugu: defentsak igo,
hesteetako flora hobetu...

5. Osakidetza...

Medikuntza eta naturopatia
ez dira arerioak. Beharrezkoak

dira hango espezialistak,
analitikak, zirujauak, makinak

6. Jendearen profila...

Bi eratako jendea dator:
konbentzituta daudenak
terapia naturaletan; eta 2.
iritzi baten bila medikuntza
ofizialetik datozenak.*

📧 **Ainitze Agirrezabala**



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com



SEGUROS BILBAO | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

www.segurosbilbao.com

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:

- ETXEBIZITZAK
- AUTOAK
- DENDAK
- PERSONALAK eta abar.

AURREZTEKO PRODUKTU INTERESGARRIAK.
BAITA AURREZKIENTZAKO ERE.

Joxe Migel Muguruza (Urola Erdirako agente eskklusiboa)

Telf: 652.776.909 jm.muguruza@segurosbilbao.com

Pantailatik kanpo

Telebista munduan egindako ibilbideagatik ezagutzen dugu Joseba Iriondo; baina aurkezle lanak utzita ere, bizitza oparoa du gaur egun. 📌 **Monika Juaristi**

Joseba Iriondo (1969) azpeitiarra da izatez, Xanjuandegi auzokoa. Euskal Telebistan egiten zuen lan, eta urteetan pantailan ikusi dugun aurpegi ezaguna da. Baina pantailatik harago, are interesgarriagoa da aurkezle ohiaren bizia.

Duela bost urte pasatxo utzi zion EITBko lanetan aritzeari. Eta harrezkero, bere kasa ibiltzen da lanean. Bere enpresa sortu zuen eta ekonomia eta finantza munduko enpresa handientzat egiten du lan *freelance* moduan.

Komunikazio kontuetan aholkulari lanak egiten ditu batetik, eta bestetik, idazkera kreatiboa izenekoan gauzak idazten. Lana erabat desberdina da gehienbat, gaiari dagokionez: "Finantza arloko gauzak aztertu eta idazten ditugu. Oso mundu zaila da, desberdina eta konplexua, eta aldi berean, interesgarria oso". EITBn hainbat urte eman zituen Iriondok, eta dioenez, "bi lanek ez dute inolako zerikusirik". Bere bizitza profesionala erabat aldatu dela azaldu du.

Bere kasa lan egin arren, ordea, nagusi gogorra da. Izan ere, egunero, ia hamabi orduz egiten du lan. "Bizi kalitate aldetik asko baxatu dut; lehen lasaiago bizi nintzen", dio berak. "Orain bezeroen beharren menpe nago eta goizeko zortzietatik gaueko zortzietara egiten dut lan. Ordu aldetik askoz ere lan gehiago egiten dut, eta lasaitasunari dagokionez ere, asko galdu dut". Bilbo inguruan egiten du lan, eta ordu asko sartzen ditu bulegoan eta etxean. Baina "orain oso gustora nago.

Joseba Iriondo Pakistanen, 2001ean.



Profesionalki asko hazteko aukera eman dit lanbide honek. Zailtasunak tarteko, egoerak berak behartzen zaitu gauza ezberdinak ikasi eta egitera. Eta hori asko gustatzen zait”.

Eguneko hamabi ordutan lanean egon arren, aisialdirako ordu batzuk ateratzen ditu Iriondok, eta gehienbat, kirola egiteari eskaintzen dizkio ordu libreak. Duela urte batzuetatik, triatloiak egiten ditu. “Askotan bazkaltzera joan beharrean korrika egitera joaten naiz. Eta afaltzera joan aurretik igerilekura. Asteburuan, berriz, bizikletan ordu mordoa sartzen dut”. Batez beste, egunero bi ordu inguru ateratzen ditu entrenatzeko.

Triatloi luzeak egiten ditu. Urtero Ironman bat edo bi egiten ditu. Ironman proban 3,8 kilometro igerian, 180 bizikleta gainean eta beste 42 kilometro korrika egiten dira. Orain, bere 11 eta 12garren probak prestatzen ari da. Lehena Alemanian egingo du zutaillean; eta bigarrena, Arizonan, azaroan.

Lasterketak ere egin ohi ditu. “Korrikan oso txarra naiz, oso *paketea*”, baina egindako probak ikusita, ez dirudi hori horrela denik. Aurten, esaterako, Behobia-Donostia lasterketa eta maratokia egin ditu.

Erdi zarauztarra da Iriondo, eta nola ez, surfalaria da. Neguan egunak motzagoak izanik, ez du uretarako denbora askorik izaten, eta horregatik, udan ibiltzen da batez ere uretan. “Bizi guztian egin dut surfa. Orain lanarengatik eta denbora gutxiago dut, eta horrek pena ematen dit, baina hala ere, ibiltzen naiz”. 32 urte pasatu dira surfean hasi zenetik. Zarautzen ibiltzen zen beti, eta orain Sopelan bizi denez, han ere ibiltzen da. Surf mundua asko aldatu dela dio, ordea: “Orduan, lau katu ibiltzen ginen uretan, elkar ezagutzen genuen eta oso giro ona zegoen. Azken urte hauetan, ordea, sekulako *boom*-a izan da eta



1. Zarauzko triatloia, aurten. 2. Kabul, 2002.

hondartza guztiak jendez beteta daude. Alde horretatik, pereza apur bat ematen dit”. Neguan eta udazkenean denbora apur bat izanez gero, jende gutxien dabilen egunetan ibiltzen da, eta “moda horretatik urrun”, lasai surfeatu ahal izateko.

Dozena orduz lana eginda, eta beste bi orduz kirola, horrekin nahikoa duela dio. Baina denbora gehiago izango balu, argi dauka zertan inbertituko lukeen: “Askotatu litzaidake talderen batean sartu eta bizkaitarrez egiten ikastea, baina egia esan, ez dut horretarako astirik. Leher eginda bu-

katzen dut eguna eta kontu gehiagotan sartuko banintz, zisko eginda amaituko nuke”.

Bidaiatzea ere atsegin du. EITBn gerra-korresponsal ibili zenean, bidaiak liluragarriak egiten zituen, baina orain, asko aldatu dira bere zaletasunak: “Oporretara askotan leku komertzialetara joaten naiz”. EITBko lanak leku bereziak ezagutu eta bidaiak ederrak egiteko aukera eman zion. “Oso aberasgarriak izan dira kazetari nahiz pertsona moduan. Oso leku interesgarriak ezagutu ditut. Horregatik, leku zailletara bidaiatzeko min hori asetuta dudala esan dezaket”, eta orain, bestelako bidaiak egiten ditu, lasaiagoak.

Urruneko sentimendua

Azpeitian jaio zen Iriondo. Ama azpeitiarra da, eta aita, berriz, urrestildarra. Baina 11 urteko mutikoa zenean, Zarautzera joan zen bizitzera, eta horrek, nolabait esateko, azpeitiar sentimendua ahuldu egin du kazetariarengan: “Koskortu eta gizondu, inoiz gizondu banaiz, behintzat, Zarautzen egin nintzen; eta betiko lagunak Zarautzen egin nituen, eta horregatik, azpeitiar baino gehiago zarautzar sentitzen naiz”, dio. “Ez dadila inor haserretu e! ez da ezergatik, baina hala da”, erantsi du. Hala ere, Azpeitian sustraiak badituela dio, familia hemengoak duelako; eta etxean, oraindik ere, azpeitiarrez egiten omen dute.

Urteak dira Iriondok bere jaiolekua zapaldu ez duela. “Joaten banaiz, familia kontuengatik izaten da. Bizikletan joaten naizenean, Azpeitiatik pasatzen garenez, beti geratzen naiz familiar kasu egitera. Baina bestela, egia esan, oso-oso gutxitan joaten naiz”.

Azpeitiarra sentitu ez arren, sentimendu eta oroitzapen politak ekartzen dizkio herriak; eta hizkeran ere, nabarmena da bere jatorria. Beraz, sustraiak ez ditu guttiz eten.✘

**ZEU ZARA
PROTAGONISTA**

Zornotzako Barnetegia

Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
 info@zornotzakobarnetegia.com
 www.zornotzakobarnetegia.com
 Tel.: 94 630 83 04

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (URTARRILA)

EGUNEZ

1-15-22-26-27	2-8-9-10-11-12-13-16-28	3-6-17-21-25-29
Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 080258	943 811350	943 811949

GAUEZ

1-2-3-4-5-6-21-22-23-24-25-26-27	7-8-9-10-11-12-13	14-19-20
Beristain (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811949	943 811350	943 850660

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 30ean izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



BOTIKEN ORDUTEGIA.

Herriko farmaziek 2013. urtean ordutegi berria izango dute. Hala, goizetan 09:00etatik 13:30era zabalduko dituzte ateak; arratsalde, berriz, 16:00etatik 19:30era.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:


www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

15-16-28	17-29-30-31	18
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 852989	943 851235	943 851966

IÑAKI ELORZA 'TXAPAS'

Donostian bizi da

“Diana irratiz ematea eskertu egiten du jendeak”

Atabalak astintzen ezpada, danborrada irratiz ematen... hutsik egin gabe hartu du parte azken 39 urteotan.  Ainitze Agirrezabala

Askotan esaten da **Azpeitia Donostia txikia dela. Esaera horrek ba al du oinarririk?**

Askotan esaten da karnabalak Tolosakoak direla, Sansebastianak Donostiakoak, Santomasak ez dakit nongoak, eta guk kopiatu egiten dugula, baina ni horretan ez naiz sartuko. Azkenean, festa horiekin jaio zara, txikitatik bizi dituzu eta zeure egiten dituzu. Niretzako festa bat baino gehiago da Azpeitia. Gustuko ditudan momentu berezi asko ditut: Saninaziotako txupinazoa, zezenetakoa, danborrada, Astearte karnabaletako diana...

Azpeitiako ala Donostiako danborrada? Azpeitiako danborrada ez nuke Donostiarekin alderatu nahi. Niretzako Azpeitia danborradarako oso berezia da. Sansebastian zalea betidanik izan naiz. Iruñean ikasten nengoela ere, irratiz Donostiako danborrada entzuten nuen.

Ardozaleak taldearekin urte askoan atera izan zara zu danborra jotzen...

Hogei bat urtean. Aurrenekoz, helduen danborradan 1973an atera nintzen, arrantzale jantzita. 20 urte nituen, eta bizarra luzea. Le-

henago, umeen danborradan ere atera izan nintzen. Gero, Euskadi Irratian lanean nenbela, danborrada irratiz zuzenean eman behar nuela esan zidaten. Hala, lehen 3-4 urtetan egiten nuen danborrada 23:00k arte-edo jo, udaletxera joan eta ekipoa han edukitzen nuenez muntatuta, irratiz zuzenean eskaintzen nuen. Geroago, Sansebastian eguneko diana ere Euskadi Irratiatik zuzenean ematea lortu genuen. Horretarako, banda udaletxe aurreko plazatik ateratzea eskatu nion Xuberri, lehenago Baigeratik ateratzen baitzen banda. Ez dakizu kanpoan bizi diren azpeitiarrak zenbat eskertzen didaten diana irradi bidez zuzenean ematea. Zentzu horretan, eskerrak eman nahi nizkioke Uztarriari; kanpoan bizi garenok horko berri jasotzeko aukera izaten dugulako.

35 urte Donostian bizitzen. Azpeitiar sentitzen al zara?

Dudarik ez. Eguneroko bizitzan Txetxuri (Urbietan) galdetzen diodan lehenbiziko gauza da: 'zer egin du Lagun Onakek?'. Garrantzitsuagoa da Lagun Onakek zer egin duen, Realak zer egin duen baino.*



1. Unai ilobarekin, 1989ko urtarrilaren 20an. Elorza mezetatik aterata soziedadera bidean, eta iloba danborradan abiatu aurretik. **2.** Duela 40 urte, 1979. urteko San Sebastian bezperan ateratako argazkia. Ardo Zaleak taldeak orain duen trajea estreinatu aurretik arrantzale jantzian atera zen azkeneko aldia. **3.** Ardo Zaleak taldetik danborra jotzen, 1985. urtean edo.



Eta sartu nintzen

Ama bainugelatik irten zen, txabusina gorputzean estu-estu bilduta.

Nire aldera batere begiratu gabe sartu zen logelara, eta atea itxi zuen. Tarte luze bat igaro zen, eta gero ohera sartzen entzun nuen.

Neure logelara joan eta erantzi nintzen.

Larrugorritan, ohe ertzean zain jarri nintzen. Jakin nahirik hainbeste beldurtzen ninduen eta, era berean, gogo biziz nahi nuen hura jasoko ote nuen.

Ia-ia ordubete igaro zen. Halako batean, haren logelako hormatik, hiru kax-kax.

Gogo txarrez, kezkatan, jaiki eta nire gelako argia itzali nuen. Poliki-poliki, egongelara joan nintzen eta hango argia ere itzali. Jarrera, ilunpetan balantzaka eta baldar, haren logelako aterainoko bidea aurkitu nuen.

Eskulekua jiratu nuen.

Eta sartu nintzen.

Logela ilun baino ilunago zegoen, baina oheak karranka txiki bat egin zuen, lehenengo behin eta gero berriz, ni bertara gidatuz, berarengana. Besoak ilunean luzatuta zeuzkan, besarkatu ninduten eta haren haragi biluziaren kontra estutu. Eta orduan, poliki-poliki haren mihiak nire ezpainak aurrera eta atzera igurtzi eta muxu eman zidan.

Intziri egin nuen, neure mihia gogortu eta aurrera bultzatzen saiatzen nintzen bitartean. Berehalaxe, haren ezpainak lerro zigilatu bat egin ziren. Poliki, haren ipurmasailetara eramantzen nituen eskuak; segundoa orduko gogortu zituen, giharrak tenk eta atzerantz okertuta nigandik urruntzeko eran, eta besoak gorantz eramantarazi zizkidan, bere sorbalda aldera.

Hankak gurutzatuta zituen. Tinko gurutzatuta. Eta emakumearen hankak hala daudenean, kito. Dagoena dago, ez dago besterik.

Horretan geunden gu. Gizon biluzia eta emakume biluzia, ilunean bata besteari estu lotuta. Nahiz eta elkarrengandik milaka milatara ere egon gintezkeen. Ez zuelako ezer esan nahi.



|||||||miel a. elustondo|||

|||Zer da nahi duzuna? -eten zidan hotz-, benetan espero dut ez izatea inondik ere aditzera eman nahi duzuna...

Denbora tarte handia igaro ondoren –minutuak haren aburuz, mendeak nire iritiz–, haren gorputza bigundu egiten zela sentitu eta estasi hasperen leuna entzun nion. Eta niri ukatzen zitzaidana berak lortu zuela jabetu nintzen.

–Ondo da –esan zuen goxoki–, elkarri musu eman diogu eta adiskidetu gara. Orain ez zaude amarekin haserre, ezta?

–Ama –kexatu nintzen–, Mary, Jainkoarren...!

–Ez duzu ama bere izen ttipiaz deitu behar –haren ahotsak zurikeria salatzen zuen–, ez da egokia.

Esan nion, baietz, arraio halakoa, irabazi zuela.

–Baina, Jainkoarren, Ma... ama! Sikiera zuk...

–Maldizioka ibiltzea ere ez da egokia. Zure gustua egin nahiko nuke, benetan

–herabeti–, zu oso ondo sentiarazi,

baina maldizioka hitz egiten duzun bitartean, eta gaizto portatu, eta nirekiko gorrotoz...

Esan nion ez nuela berriz inoiz horrelakorik egingo. Berak eskatzen zidan edozer egingo nuela, berak bakarrik zera...

–Zer da nahi duzuna?

–etenarazi zidan, hotz–, benetan espero dut ez izatea inondik ere aditzera eman nahi duzuna...

(jim thompsonen amorraren ume liburutik)*






XR

XANTI RODRIGUEZ
ARGAZKI ESTUDIOA
TFN : 9 4 3 0 8 3 7 5 3

AZPEITIAN ARGAZKI ESTUDIO BERRIA.

2013KO EZKONTZA, JAUNARTZE ETA BOOK AGENDA IREKIA.

WWW.XANTIRODRIGUEZ.NET




Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1
Tel/Fax: 943 81 16 50




Negua



2013



horzkari
horts osasun klinika



**Ondo pasau
San Sebastianak!**

www.grupohorzkari.com

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

Hortz-inplanteak, Aho-kirurgia
Protesiak, Ortodontzia
Damon System
%100 Finantziazioa